



EKONOMIA-ETA ARAU-KONTROLEKO TXOSTENA, KONTROL EKONOMIKOKO BULEGOAK EGINA, LANKIDETZARAKO ETA ELKARTASUNERAKO EUSKAL LEGEAREN AURREPROIEKTUAREN GAINEAN

-Tramitagune – DNCG_LEY_59636/21_84

Urriaren 19ko 2/2017 Legegintza Dekretuak, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen testu bategina onartzen duenak, III. tituluko IV. kapituluak kontrol ekonomiko normatiboa arautzen du. Kontrol hori nahitaezkoa da, eta Kontrol Ekonomikoko Bulegoak egindako txostenaren bidez gauzatzen da.

Kontrol horrek barne hartzen du, ekonomiaren eta antolamenduaren alderdiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko organo oren eraketa zein desagerpena fiskalizatzea, baita organo horien aldaketak eta berregituraketak fiskalizatzea ere.

Kontuan izanik aipatutako araua, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren III. kapituluak 3. sekzioak xedatu duena, eta Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko otsailaren 23ko 69/2021 Dekretuaren 4. artikulua dioena, honako txosten hau ematen da:

TXOSTENA

I. XEDEA

Izenburuan agertzen den proiektuaren helburua da, 1. artikuluan xedatzen denaren arabera, «*lankidetzaren eta elkartasunaren arloko EAEko politika publikoen araubide juridikoa ezartzea eta arautzea*»; eta lehenengo artikulua horren bigarren apartatua honela definitzen dira horiek: «*EAEko lankidetzaren eta elkartasunaren araubide EAEko, Hegoaldeko eragileekin batera, giza garapenaren eta bizitzaren jasangarritasunaren, justizia globalaren (bereziki, generoaren, gizartearen, ekonomiaren eta ingurumenaren ikuspegitik) eta prozesu demokratikoen sakontzearen, bakearen eraikuntzaren eta munduko herrien arteko bizikidetzaren esku jartzen dituen jarduerak, gaitasun, baliabide eta balio solidarioen multzoa*».

Xedapen indargabetzaile bakarraren bidez, indargabetuta geratzen dira maila bereko edo beheagoko arauak, igorritako aurreproiektuan xedatutakoaren aurkakoa den horretan; zehazki, hauek:



- «1. – 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa.
- 2.– 14/2007 Legea, abenduaren 28koa, Herrialde Pobretuekiko Justizia eta Elkartasunerako Gutunarena.
- 3.– 124/2005 Dekretua, maiatzaren 31koa, Garapenean Lankide izateko eta Laguntzeko Fondoaren pentzutan borondatezko euskal lankideei laguntzak ematea arautzen duena.
- 4.– 22/2007 Dekretua, otsailaren 13koa, Nazio Batuen sistemako Nazioarteko Erakundeei eta horiei atxikitako pertsona juridikoei esleitzen zaizkien laguntzak arautzen dituena eta xedea Nazioarteko Erakunde horiek herrialde txirotuetan gauzaten dituzten garapen proiektuetan parte hartzen duten borondatezko lankideei beka ematea duena.
- 5.– 57/2007 Dekretua, apirilaren 3koa, Garapena eta Lankidetzaren Sustatzeko Fondoaren kargurako programetarako laguntzak arautzen dituena.
- 6.– 140/2018 Dekretua, urriaren 9koa, Garapenerako Lankidetzako Eragileen Euskal Autonomia Erkidegoko Erregistroa sortu eta arautzekoa.
- 7.– Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluari buruzko irailaren 16ko 158/2008 Dekretuaren 5. artikuluko 5. apartatua, larrialdietan laguntza humanitaria emateko batzordea eratzen eta arautzen duena».

II. AURREKARIAK ETA IGORRITAKO DOKUMENTAZIOA

II.1.- Justifikazio-memoriak adierazten duenez, 2007. urtean, Eusko Legebiltzarrak Garapenerako Lankidetzari buruzko otsailaren 22ko 1/2007 Legea onetsi zuen. Lege horrek eztabaidatu eta onartu zen garaiko egoera politiko eta sozialari erantzuten dio, eta lege-babesa eman dio konpromiso solidarioan oinarritutako eta EAEko administrazioen eta elkarte-ehunaren arteko aliantza sendoan bermatutako lankidetzaren politika publikoari. Hala ere, gaur egun, EAEko lankidetzak aurre egin behar dien erronkak 2007koen oso bestelakoak dira. Nazioarteko testuinguruko aldaketak ikusita eta lankidetzaren Garapenerako Lankidetzaren IV. Gida Plana (2018-2021) delakoaren esparruan xedatuta zegoen moduan, egungo legeak dauzkan potentzialtasunei eta mugei buruzko azterketa bat egin da». Memoriak gehitzen du, gainera, 2007ko Legearen mugak gainditu nahi dituela lege berriak, eta honako helburu hauek dituela: «egungo erronka globalekin bat datorren eta nazioarteko garapen-agendak bere egiten dituen EAEko lankidetzaren politikan aurrera egitea; EAEren konpromiso solidarioa gure ezaugarrietatik indartzea: kalitate oneko lankidetzaren deszentralizatu bat, elkartasunean eta lankidetzaren publiko eta sozial sendoan oinarritua; EAEko lankidetzaren eragileen arteko koherentzia eta ardurakidetasuna hobetzen dituen erakunde-arkitektura berria finkatzeko aurrera



egitea; garapen jasangarrirako politiken koherentzia bereizgarri duen eredu baterantz aurrera egitea, zeinak bide emango baitu araua EAEko administrazioetatik eta administrazioon barrualderantz hedatzeko; EAEko baliabide solidarioak mugiarazteko oinarria zabaltzea: herritar aktiboak; sektore dinamikoa eta askotarikoa; ibilbide eta esperientzia aitortuak dituzten GKE espezializatuak; ahalik eta nahasitako eragile sozial eta instituzional gehien; konpromisoa duten eta aktibo dauden administrazioak».

Egiaztatu da XII. legealdiko (2020-2024) legegintza-egutegia onartzen duen Gobernu Kontseiluaren 2020ko azaroaren 10eko Erabakiaren I. eranskineko lege-proiektuen zerrendan, 26. puntuan, «*Garapenerako Lankidetzaren Legea*» proiektua jasotzen dela, eta Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Saila agertzen dela sustatzaile gisa; era berean, aurreikusten da Gobernu Kontseiluak onetsiko duela 2021eko bigarren seihilekoan –beraz, epe hori ez da beteko–. Proiektu horren informazio-fitxan (aipatutako Erabakiaren II. eranskina) honako hau jasotzen da:

a.- Izena: GARAPENERAKO LANKIDETZAREN LEGEA

b.- Erregulazioaren helburu nagusia:

Euskal Autonomia Erkidegoko administrazio publikoek egiten eta bultzatzen duten garapenerako lankidetzaren eta nazioarteko elkartasunaren politika arautzea.

c.- Beste helburu batzuk:

- Garapenerako Lankidetzaren V. Gida Plana, Afrika indartuz, besteak beste.*
- Garapenerako politiken benetako koherentziaranzko bultzada irmoa.*
- Eusko Jaurlaritzako sailak beren jardun-eremuekin lotutako lankidetzak-ekimenetan sartzeko ekintza zehatzak sustatzea.*
- Erakunde barruko eta erakundearteko koordinazioa, Euskal Fondoarekiko aliantza bereziki sakonduz.*

d.- Eraginpeko gizarte-sektoreak

-Erakunde publikoak.

-Garapenerako lankidetzako eragileak.

e.- Noiz bidaliko zaion, gutxi gorabehera, lege-proiektua Jaurlaritzaren Kontseiluari, onar dezan:

- 2021eko bigarren seihilekoa.

Izenari dagokionez, bulego honek azter dezan bidalitako aurreproiektuaren izenburua «Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektua» da. Legearen izena aldatzeari dagokionez, justifikazio-memoriak honako hau adierazten du: «*lege honetan "garapenerako lankidetzak" terminoaren erabilera baztertzen da (...) "Garapenaren arazoak" pobreziarekin eta populazioaren ongizaterik ezarekin dute zerikusia eta batez ere Hegoaldeko eragiten diete, baina ez dira hor amaitzen. Aitzitik, hazkundearen planeta-mugak, desparekotasuna, aberastasunaren, baliabideen eta boterearen banaketa ez-bidezkoa, askatasunik, bakerik eta*



segurtasunik eza biltzen dituzte, besteak beste. Horrela, lege honen bidez, lankidetzeta eta elkartasuneko EAEko politika publikoak aurrera egiten du justiziarekin eta bizikidetzeta globalarekin lotutako helburuak lortzeko eta garapenaren ikuskera zabal bat, zeinak barne hartzen baititu pertsonen zentraltasuna —dibertsitate indibidual eta kolektiboak kontuan hartuta— eta planetarena, bereganatzeko (...); aurrekoaren ondorioz, "garapenerako lankidetzako politiken" aipamenak ezabatu dira, eta haien ordez "lankidetzeta eta elkartasuna" erabili dira».

Era berean, Garapenerako Lankidetzaren Legearen aurreproiektua aintzat hartuta dago 2021eko, 2022ko eta 2023ko urteko araugintza-planetan.

II.2.- Proposamena egin duen sustatzaileak dagokion dokumentazioa bidali du bulego honetara, ekonomia- eta arau-kontrolaren izapidea zertu dadin; eta bertan datoz, besteak beste, aurreproiektuaren testuaz gain, Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako sailburuaren aginduak, proiektua hastekoa eta aldez aurretik onestekoa; proiektuari buruzko txosten juridikoa; memoria ekonomikoa; justifikazio-memoria; enpresan duen eraginari buruzko txostena; Emakunderen, Herri Administrazioetan Hizkuntza Normalizatzeko Zuzendaritzaren, eta Haur eta nerabeengan eta familian duen eraginaren ebaluazioaren txostenak; Gobernantza Publiko eta Autogobernu Saileko Berrikuntza Publikoko eta Administrazioa Hobetzeko Zuzendaritzaren txostena; Datuak Babesteko Euskal Bulegoaren txostena; Funtzio Publikoko Zuzendaritzaren txostena; Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluaren txostena; Ogasun eta Ekonomia Saileko Ondare eta Kontratazio Zuzendaritzaren txostena; Tokiko Gobernuen Batzordearena; eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordearen 3/23 Irizpena. Era berean, jendaurreko kontsultako izapideei eta arau hau egiteko prozesuan parte hartu duten instantzien alegazioei buruzko hainbat dokumentazio bidali da, bai eta jaso diren alegazioei erantzuteko txostena ere. Azkenik, prozeduraren memoria laburra dator espedientean.

Uste dugu igorritako dokumentazioa bat datorrela Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 41. artikuluko eta hurrengoetako xedapenekin, eta dokumentazio horrek informazio nahikoa biltzen duela bulego honek ekonomiaren eta arauen kontrola egin dezan, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomia Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen 25., 26. eta 27. artikuluen arabera; azpimarratu behar dugu, halaber, aipatutako kontrolak barne hartuko duela, ekonomiaren eta antolamenduaren alderdiari dagokionez, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoko erakunde eta entitateen sorrera eta desagertze ororen fiskalizazioa, baita haien aldaketak eta berregituratzeak ere.



III.- ANALISIA

A) Ekimena sustatzeko eskumena

Justifikazio-memoriak eta txosten juridikoak aipatzen duten bezala, lankidetzaren arloko eskumena ez dago beren-beregi aintzat hartuta EAEko Autonomia Estatutuan, baina horrek *«ez du ekiditen EAEk bertan jarduketak egin ahal izatea, bere eskumenak kanpo-ekintzan proiektatuz (...), eskumen horien indarrez eman zen 1/2007 Legea, otsailaren 22koa, Garapenerako Lankidetzari buruzkoa»*. Alde horretatik, Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoak 92/2004 irizpena eman zuen garapenerako lankidetzari buruzko lege-aurreproiektu hori onesteko prozeduran, eta autonomia-erkidego honek proiektuari ekiteko duen eskumen-titulua aztertu zuen, honako hau adieraziz: *«9. Azaldutakoak esan nahi du Autonomia Erkidegoaren eskumen-araubidea ez dela aldatzen lankidetzaren Estatuaren lurralde-mugetatik harago egiten delako»*. Hala ere, ez zen erakunde-maila desberdinen eskumenei buruzko azterketarik egin.

Foru-administrazioei dagokienez, garapenerako lankidetzaren ez da beren-beregi aipatzen 27/1983 Legean, azaroaren 25ekoan, Autonomia Erkidego Osorako Erakundearen eta bertako Lurralde Historikoetako Foruzko Jardute Erakundearen arteko harremanei buruzkoan (LHL). Txosten juridikoan esaten den bezala, *«Autonomia Erkidegoaren eskumenarekin gertatzen den bezala, foru-organismoek ere kanpora proiektatu ditzakete beren barne-eskumenak, hau da, estatutuz eta legez aintzatesten zaizkienak. Horren ondorioz, foru-aldundiek dirulaguntzen araudia onartu izan dute arlo horretan, baita plangintza-tresnak ere»*.

Toki-administrazioak, bestalde, 2/2016 Legeak, apirilaren 7koak, Euskadiko Toki Erakundeak buruzkoak (ETEL), xedatzen duenaren arabera, *«eskumen propiotzat»* du *«garapenerako lankidetzaren alorreko politikak planifikatzea, antolatzea eta kudeatzea»* (ETELen 17.1.37 artikulua). ETELen 15. artikulua arabera, lurralde-izaerako toki-erakundearen eginkizun edo ahalmenak izan daitezke arauemaile edo antolamendukoak, plangintzakoak, programaziokoak, sustapenekoak, kudeaketakoak edo betearazleak. Tokiko lurralde-izaerako toki-erakunde bati eskumen bat propiotzat esleitzen bazaio, erakunde horrek ahalmen guztiak izango ditu, non eta ez den, salbuespen gisa, lege-testuan eginkizunen aldetik mugaketa jakin bat ezartzen.

Horri dagokionez, txosten juridikoak ondorioztatzen du *«garapenerako lankidetzaren arloko eskumena da erakunde-maila bakoitzaren eskumen propioen kanpo isla, non hiru mailak jardun baitaitezke. Lurralde historikoei dagokienez, garapenerako*



lankidetzaren arloa ez da haiei esleitutako pribatiboetako bat; beraz, uste dugu lege autonomiko batek, autonomia-erkidegoaren esparruan garapenerako lankidetzapolitika koordinatua, koherentea eta eraginkorragoa izatea bermatze aldera, ezar ditzakeela helburu horretara bideratutako jarduera-irizpide komunak».

Espedienteari Tokiko Gobernuen Batzordearen txostena, 2023ko otsailaren 3koa, atxiki zaio, honako hau ondorioztatzen duena: *«aurreproiektuaren eduki materialak ez dira automatikoki aplikagarriak udal-autonomiaren kaltetan. Horrela, ezingo da koordinazioaz hitz egin, ezin da aldez aurreko txostenik egin, eta helburu, printzipio edo ikuspegi primarioak gida-adierazleak baino ez dira izango udalen jarduerarako. Antolamenduari dagokionez, ezin da betebeharrak espezifikorik ezarri (...) arlo ekonomikoan, proiektuak ez du eraginik udal-ogasunean».*

Aurrekoa kontuan izanda, lege-aurreproiektuaren xedea da lankidetzaren eta elkartasunaren arloko EAEko politika publikoen araubide juridikoa ezartzea eta arautzea, printzipioak eta lortu beharreko helburuak adierazita, gainerako administrazio publikoen eskumen propioetan eraginik eta loturarik izan gabe.

Hala ere, bulego hau bat dator txosten juridikoarekin, esaten duenean aurreproiektuan zehar *«ez da beti argi azaltzen parametro komunak ezartzeak zein kasutan desitxuratzen dituen esleitutako eskumen-esparruan maila bakoitzari dagozkion eskumenak eta erabaki-ahalmenak».* Bulego honen ustez, espedientean ez da ageri eta aurreproiektuaren artikuluetan ez dago jasota esparru bat edo administrazio bakoitzari esleitutako eskumen-esparruaren azterketa zehatzik, atal honetan azaldutako hausnarketez gain. Azterketa hori gabe, ezin da balioetsi proposatutako testuaren idazkera eskumen-ordenara egokitzen den ala ez, ezta maila bakoitzera bideratu beharko litzatekeen baliabide ekonomikoen munta ere, eta iruditzen zaigu Jaurlearitzak landutako lege-aurreproiektu batek jaso beharko lukeen funtsezko alderdietako bat dela.

Zehazki, administrazio bakoitzaren eskumenak argi eta garbi zehaztu ez direnez, nahasgarriak eta argitu beharrekoak dira testuko aipamenetako batzuk. Zehazki, 3.2.f) artikulua ezartzen du lankidetzaren eta elkartasunaren EAEko politika publikoaren berezko ezaugarria dela *«Gobernuak bere osotasunean duen ikuspegi aurrera egitea, garapen-agenda globalei laguntzeko, haien esperientziatik abiatuta eta Hegoaldeko herrien esperientziarekin uztartuta».* Administrazio bakoitzaren eskumenak zehaztu gabe badaude, bakoitzak bere ikuspegia ezarriko du, eta zaila izango da eskumen bateratu bat ezartzea. Bestalde, 10.1 artikulua gaia da administrazio publikoen garapen jasangarrirako politiken koherentzia, eta, horretarako, lehenik eta behin, administrazio bakoitzak arlo horretan dituen



eskumenak zehaztu behar dira. Oharpen berbera egiten da zirriborroaren 10.3, 14.6, 17.1, 19.1 eta 20.1. artikuluetako «eskumenak erabiltzean/eskumenen arabera/eskumenen esparruan» adierazpenei dagokienez.

B) Prozeduraz

Orokorrean, 8/2003 Legeak, abenduaren 22koak¹, eskatzen dituen izapideak bete egin dira orain arte.

Euskadiko Aholku Batzorde Juridikoari buruzko azaroaren 24ko 9/2004 Legearen 3.1.a) artikuluan ezarritakoarekin bat etorritz, aurreproiektua, onartu aurretik, aholku-erakunde horren irizpenaren pean jarri behar da.

Horri dagokionez, gogorarazi beharra dago, Euskal Autonomia Erkidegoko Ekonomiaren eta Arauen Kontrolari eta Kontabilitateari buruzko Legearen 27.1 artikuluan xedatutakoarekin bat etorritz, Kontrol Ekonomikoko Bulegoari jakinarazi beharko zaizkiola Euskal Autonomia Erkidegoko Aholku Batzorde Juridikoaren iradokizunen eta proposamenen ondorioz lege-aurreproiektuetan eta arauzko xedapenen proiektuetan sartzen diren aldaketak (hori betetzeko, Kontrol Ekonomikoko Bulegoko zuzendariaren 2005eko urriaren 14ko 2/2005 zirkularrean jasotakoari jarraitu beharko zaio).

C) Testuaz eta edukiaz

Aztertutako dokumentaziotik ondorioztatzen da aurkeztutako testuan aztertu egin direla eta neurri batean onartu egin direla lanketa-prozesuan parte hartu duten erakundeek egindako alegazioak.

Txostenean aztertu den lege-aurreproiektuaren testuak azalpen-zati bat, 20 artikulua, 3 xedapen iragankor, xedapen indargabetzaile bat eta hiru azken xedapen ditu, eta ondoz ondoko 5 kapitulutan honako eduki hau jorratzen du: EAEko lankidetzarako eta elkertasunerako politika publikoa, EAEko lankidetzarako publikoaren antolamendua, EAEko lankidetzarako eta elkertasunerako politika publikoaren plangintza eta modalitateak, EAEko lankidetzarako eta elkertasunerako politika publikoaren baliabideak eta gaitasunak, eta ezagutza, ikaskuntza eta komunikazioa.

Aurkeztu den testuaren edukiari dagokionez, egokitzat jotzen da ohar hauek egitea:

¹ Eginbidean den prozedurari aplikatu dakiokiena, [6/2022 Legeak, ekainaren 30ekoak, Xedapen Orokorrak Egiteko Prozedurarenak](#), xedapen iragankorrean xedatzen duenaren arabera.



1. Aurreproiektua «Hegoaldeko herrialdeak» kontzeptuaren inguruan egituratzen da, baina hainbat izendapen erabili dira kontzeptu hori aipatzeko, hala nola *herriak*, *herritarrak*, *gizarteak* eta *agenteak*. Lehen-lehenik, terminologia hori bateratzea komeni da. Bigarrenik, zioen azalpenaren III. atalean Hegoaldeko herrialdeak eta lurraldeak zer diren aipatzen bada ere, artikuluetan ez zaio horri jarraitu. Txosten juridikoarekin bat gatoz; zehatzago adierazi behar dira «*laguntzaren hartzaile izan daitezkeen zonak edo herrialdeak, haiei zuzenduta baitaude lankidetzaren eta elkartasuna, legez arautu nahi direnak, eta, ondorioz, diruz lagun daitezkeen jarduerak*», eta horrek artikuluetan islatuta egon behar du.

2. Bigarren artikulua arauaren aplikazio-eremu subjektiboa jasotzen du, eta EAEko sektore publikoari buruzkoa da lehenengo apartatua. Espedientearen izapidetze-aldian 2.1 artikulua horren edukia aldatu den arren, 3/2022 Legeak, maiatzaren 12koak, Euskal Sektore Publikoarenak, xedatzen duenera egokitzeke, txostenaren xede den aurreproiektuan proposatutako idazkera ere ez dator bat lege horrekin.

Alde horretatik, lege-aurreproiektuaren 2.1 artikulua araberan, EAEko sektore publikoan aplikatu behar da, eta honako hauek dira hura osatzen dutenak: «a) EAEko administrazio publikoak; alegia, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta tokiko administrazioak, beren erakunde-administrazioa eta mendeko eta atxikitako gainerako erakunde instrumentalak barne hartuta; b) EUDEL-Euskadiko Udalen Elkarteak, Euskal Fonda-Lankidetzarako Euskal Toki Erakundearen Elkarteak eta EAEko sektore publikoak eratutako nortasun juridikoko beste erakunde batzuk, industria- edo merkataritza-izaerarik ez dutenak, interes orokorreko premiak asetzeko berariaz sortuak, eta lankidetzaren eta elkartasunaren arloan jarduketak egiten dituztenak; c) Euskal Herriko Unibertsitatea».

Hala ere, 3/2022 Legeak definitzen du EAEko sektore publikoaren kontzeptua 4. artikuluan², aurreproiektuaren 2.1 artikuluan jasotakoa baino irismen askoz

² 1. «Lege honetan, euskal sektore publikoa izenez ezagutzen den multzoa aintzatesten da, eta euskal sektore publikotzat jotzen da euskal administrazio publiko guztietako sektore publikoen multzoa. Honako hauek sartzen dira multzo horretan: Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio orokorra, lurralde historikoetako foru-administrazioak eta toki-administrazioak, baita haien guztien administrazio instituzionala eta haien mende eta atxikita dauden gainerako ente instrumentalak ere».

2. Honako hauek ere euskal sektore publikoan sartzen dira: atxikimendu-erregimenik ez duten nortasun juridiko independenteko ente publikoak, hala nola Lan Harremanen Kontseilua eta Euskadiko Ekonomia eta Gizarte Arazoetarako Batzordea, eta haien sorrera-arauan berariaz sektore publikotzat jotzen diren beste erakunde guztiak, bai eta Euskal Herriko Unibertsitatea ere.

3. Euskal sektore publikoak dira, halaber, zeinahi ere den haien izaera juridikoa eta pertsonifikazioa, baldintza hau betetzen duten entitateak: euskal sektore publikoko sektore publiko batekoa izateko lege-



handiagoarekin. Zehazki, artikulua horretan zerrendatzen diren erakundeez gain, barne hartzen dira EAEko administrazio publiko guztien sektore publikoak, bai eta, 3/2022 Legearen 4.4 artikulua aplikatuta, agregazio bidez gehitu litezkeen entitateak ere.

Bestalde, proiektuaren 2.1.b) artikulua EUDEL eta Euskal Fondoa aipatzen ditu beren-beregi. Aipamen hori ez litzateke beharrezkoa izango, bi erakundeak EAEko sektore publikoak baitira, 3/2022 Legearen 4. artikulua arabera.

Azkenik, espedientean ez da behar bezala justifikatu Euskal Herriko Unibertsitateari egiten zaion aipamen espezifikoa. 3/2022 Legearen 4.2 artikuluaekin bat datorren arren, justifikatu egin behar da zergatik aurreikusten den arauaren aplikazio-eremuan hura sartzea, eta badirudi baztertu egiten dela nortasun juridiko independentea duten eta atxikipen-erregimenik ez duten izaera publikoko beste erakunde batzuk sartzea.

Ondorioz, sail sustatzaileak berraztertu egin behar du 2.1 artikuluan datorren EAEko sektore publikoaren kontzeptuaren erabilera, eta proiektatutako arauarekin benetan lortu nahi duen aplikazio-eremura egokitu behar du, EAEko sektore publikoaren legeko kontzeptua askoz zabalagoa baita. Aurreproiektu osoan hark duen erabilera

baldintzak bete ez, baina sektore publiko horiek entitatean duten posizio multzoa hain da handia, non, multzo osoa haietako bakar bati esleituko balitzaio, nahikoa izango litzatekeen entitate hori dagokien sektore publikoan sartzeko.

4. Nolanahi ere, euskal sektore publikoaren barruan daude honako ezaugarrietako bat daukaten erakunde guztiak:

- a) Entitateko lehendakaritza edo kide bakarreko ordezkari-organoa gorenaren betetzen duenak kargu politikoren bat izatea aurreko zeregin horren ondorioz.
- b) Artikulu honetan aipatzen diren instituzio, organo edo entitateek izendatzea, zuzenean, entitateko lehendakaria edo kide bakarreko ordezkari-organoa gorenaren.
- c) Administrazioaile bakarraren sistema edukita, artikulu honetan aipatzen diren instituzio, organo edo entitateek izendatzea hura.
- d) Kide anitzeko gobernu- edo administrazio-organoa edukita, artikulu honetan aipatzen diren instituzio, organo edo entitateek izendatzea kide horietako gehienak.
- e) Entitatearen kapital edo ondarearen zati handiena artikulu honetan aipatzen diren instituzio, organo edo entitateen aurrekontuetatik etortzea eta beraiek izatea entitateari kapital edo ondarearen zati hura ematen diotenak.

Daukaten forma eta izaera juridikoaren arabera dagokien araubide juridikoaren mende daude entitate horiek, bai eta sektore publikoak diren aldetik aplikatzeak zaizkien arauen mende ere.

5. Artikulu honetan definitzen den egoeran dauden entitate guztiek egon beharko dute lege honetan aipatzen diren gaiak osatutako legezkotasun-blokearen mende, zeina entitatearen parte hartzen duten administrazio publikoek erantzen baitiote, halako moldez, non entitatearen sortze-arauak, estatutuek edo antolaketa- eta funtzionamendu-arauak eta haren partaide diren administrazioek ezarritako hitzarmenak xedatutako terminoetan beteko duten.



berrikusi behar da, bai eta «EAEko sektore publikoa», «EAEko administrazio publikoak» edo antzekoei egindako erreferentzia sistematikoak ere.

Aurreproiektuaren 2.2 artikuluari dagokionez, gomendatzen da «*EAEko sektore publikoari esleitutako aurrekontuarekin*» esamoldea aurreko paragrafoetan jada azaldu dugunera egokitzea. Bestalde, hirugarren apartatuan, proposatutako idazkeraren ordezkari honako hau jartzea gomendatzen da: «(...) EAEko lankidetzarako eragileek sustatutako lankidetzaren eta elkartasun-jardueretan *zuzenean* parte hartzen duten».

3. Gomendatzen da 3.2.a) artikuluko «arnas luzekoa izatea» esamoldearen ordezkari «luzerako izatea» jartzea.

4. 7. artikuluari dagokionez, aurreproiektuan sistematikoki erabiltzen den EAEko sektore publikoaren kontzeptua birdefinitzeko beharrez arestian azaldu dugunaz gain, g) apartatua kentzea iradokitzen dugu «*gardentasunaren eta kontuak ematearen arloa*» bere arau sektorialekin araututako eta lege honetatik kanpo geratzen den gaia delako.

5. Bulego hau bat dator aurreproiektuaren 8.2 artikulua c) eta d) letrei buruzko txosten juridikoan egindako oharpenekin, eta egokitzen jotzen du haiek aintzat hartzea.

6. 9., 11. eta 13. artikuluei buruzko oharra txosten honen D.1. atalean jaso dira, antolamendu-gaiei buruzkoan.

7. 10.2 artikulua hiru eginkizun berri esleitzen dizkio Lehendakariari. Onetsi nahi den legeak irauteko bokazioa duenez, eta denboran zehar sailen arteko eskumenaldaketak egon daitezkeenez, Lehendakariari aipatu beharrean, testuko beste pasarte batzuetan erabiltzen den «eskumena duen saila» formula erabili behar da.

Justifikazio-memoriak argi adierazten duenez, «*aurreproiektua prestatzeko egindako kontsulten esparruan Lehendakariari (zehatz-mehatz, kanpo-ekintzan eskuduna den saila) Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluan ordezkari izateko pertsonekin egiaztatu zen proposamen hori (...) Haien ustez, xedapen hori koherentea da lehenago aipatutako erreferentzia-esparruarekin eta Lehendakariaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko den urtarrilaren 19ko 5/2021 Dekretuak funtzioei buruz egiten duen zehaztapenarekin, "Jaurkitzearen jarduna koordinatzeko" funtzioa ematen baitio Koordinazio Zuzendaritariari*». Hala ere, espedienteari ez zaio erantsi kontsulta horren islarik, eta ez da eskatu sail horren



iritzia espedientea lantzeko prozeduran, eta bulego honek uste du iritzi horrek jasota egon behar duela.

8. 12. artikulua «finantzaketa-funts komunak» esamoldea erabiltzen du, funts horien kudeaketa-eredua zehaztu gabe, eta funts haiek administratzeaz arduratuko diren organoak zehaztu gabe. Gogoan izan behar da 12. artikuluan adierazitako lankidetzatresnetatik eratorritako konpromiso ekonomikoek indarrean dagoen aurrekontu-araudiari men egin beharko diotela, eta ekitaldi bakoitzeko betearazpen eta likidaziora egokitu beharko direla.

9. 14.5 artikuluan, urte anitzeko plangintzen balizko edukien artean ekonomia- eta aurrekontu-bideragarritasunaren azterketa aipatu behar da.

10. Gomendatzen da 15.2 artikuluan argitzea jarduketak «*legean ezarritako helburu eta printzipioen arabera*» eta gainerako ordenamendu juridikoaren arabera zertu beharko direla.

Bestalde, ez dakigu zenbaterainokoa den 15.3 artikuluko «lagatako funtsekin» kontzeptua, ez baitator bat aurrekontu-legerian aintzat hartzen diren kontzeptuekin. Argitu egin behar da zer esan nahi duen.

11. 16. artikuluari buruzko oharrak txosten honen D.2. atalean jaso dira, aurreproiektuak ogasunaren eta ekonomia- eta finantza-araubidearen arloetan izango duen eraginari buruzkoan.

12. 17. artikulua D.3 atalean aztertuko da, aurreproiektuaren eragin ekonomikoari buruzkoan.

13. 18.2 artikuluan komeni da esatea kooperante profesionaltzat hartuko dela atzerrian lankidetzat-jarduketetan parte hartzen duen eta jarduketa sustatzen duten erakundeekin harreman juridikoa duen pertsona fisikoa, *baldin eta haren lehentasunezko helburuak betetzean egikaritzen bada jarduketa hori*. Horren helburua da lankidetzat eta elkartasun proiektuetan parte hartzen duten pertsonak kooperante profesionaltzat ez hartzea, baldin eta erakunde haien xede sozial nagusiak ez badu jarduketa horiekin zerikusirik (adibidez, banketxe bat).

Bestalde, eta zehaztasun gehiagokoa izan dadin, boluntarioa esamoldearen ordezt, «lankidetzan ari den boluntarioa» (18.3 artikuluan); eta prestakuntzaldian dagoen pertsonaren ordezt «prestakuntzaldian dagoen kooperantea» jartzea gomendatzen da (18.4 artikuluan).



18. artikuluko bosgarren apartatuak xedatzen du «jarduketa sustatzen duten erakundeek eta pertsonak» lankidetzak hitzarmen bat sinatuko dutela, betebeharrak eta eskubideak jasoz. Zehaztu egin behar da zein pertsonari egiten zaion erreferentzia. Halaber, lankidetzak eragileei gaixotasun- eta istripu-arriskuak eta aberriratze-gastuak edo erantzukizun zibila estaliko dituen aseguru bat kontratatzeke betebeharrak ezartzen die. Iradokitzen dugu gehitzea adostutako harremanaren esparruan beren eginkizunak betetzeari loturiko arriskuak eta gastuak soilik estaliko dituela aseguru horrek. Era berean, litekeena da indarrean dagoen legeriak lankidetzak eragileei beste gastu mota batzuk ordainaraztea, esaterako, Gizarte Segurantzaren kuotak. Espedientean ez da gai horri buruzko gogoetarik ageri.

14. 19.5 artikuluari dagokionez, bulego honek proposatzen du ezaugarri zehatzak ez aipatzea (soziokulturalak eta linguistikoak, adina edo desgaitasun funtzionala), eta horien ordez esapide generiko bat erabiltzea, horiek eta kontuan hartu beharreko beste batzuk ere barne hartuko lituzkeena. Era berean, aipatu behar da dokumentuen eta materialen zabalkundeak hizkuntza-koofizialtasuna bermatu behar duela.

15. «Komunikazioa» izenburua duen 20. artikulua, bere lehenengo apartatuan, hedabideekiko lankidetzak aipatzen du. Gogoan izan behar da kontzeptu horren zabaltasuna, ez dena ez zehaztu ez deskribatu aurreproiektua oinarritzen den dokumentazioan. «Hedabide» horiei egiten zaion erreferentzia orokorraren irismena zehaztu behar da; izan ere, «hedabide» esamoldeak publikoak ez ezik, pribatuak eta Internet barne hartzen ditu eta, bulego honen iritziz, Legearen irismenetik kanpo geratu behar du azken bi hedabide horiekiko lankidetzak.

«Euskal Autonomia Erkidegoko titulartasun publikoko hedabideen» inguruan, 3. apartatuan xedatzen da «beren informazio- eta publizitate-tarteetan lege honen helburuei erantzuten dieten informazio eta kanpainak zabaltzea ahalbidetu eta bultzatu» beharko dutela, eta, «erakundeen arteko lankidetzarako mekanismo edo akordio egokiak» ezarri ahal izango direla. Hori horrela, gogoan izan behar dugu EITBekin programa-kontratua dagoela, aipatu erakundeak EITB Media SAUren bidez kudeatzen dituen EAEko ikus-entzunezko komunikabideei dagokienez.

Gure ustez, 20.3 artikulua horretako xedapenak programa-kontratu horren barruan kokatu behar dira, tresna horren bidez artikulatzen baita ikus-entzunezko komunikazioaren zerbitzu publikoa garatzeko EAEko Aurrekontu Orokorretatik datorren finantzaketa. Artikulu horretan xedatzen direnek ezin dituzte eragin eremu horretako jarduketa zehatzak esparru orokor horretatik kanpo utziko lituzketen interpretazioak.



Izan ere, gure ustez, «informazio- eta publizitate-tarteetan» iragarki jakin batzuk sartzeko xedapenek informazio-jardueran modu desegokian esku hartzea dakarte, eta, manuaren gaia gorabehera, lege honek agindutakotik kanpo egon beharko luke. Gainera, publizitate-jarduerari buruzko xedapenak zerbitzua ematen duen entitatearen jarduera pribatuaren esparruan kokatu behar dira, eta, beraz, dagokion lege-, merkataritza- eta tributu-trafikoaren mende; horrenbestez, gure ustez, ezin da xedatu halako agindu abstraktuen bidez. Bulego honek ondorioztatu duenez, helburua kontzientziazio-kanpaina zehatzak sustatzea da, eta, horretarako, programa-kontratua da, hain zuzen ere, eduki horiek xedatzea ahalbidetzen duen esparru orokorra; programa-kontratu horretan txertatu beharko da dagokion xedapena, EAEko hedabide publikoen ikus-entzunezko jardueran lankidetzeta eta elkartasuna sartuta egon daitezen harreman hori eratzen duten eta programa-kontatuaren bidez jasotako finantzaketa publikoa oinarritzen duten zerbitzu publikoko edukietan. Hori guztia, alde batera utzi gabe publizitaterako espazioak kontratatu ahal izatea, aurrekontu-baliabideen barruan.

Gaineratu behar dugu aginduaren irismena ez dela mugatzen EITBren ikus-entzunezko hedabideetara; aitzitik, «EAEko titulartasun publikoko hedabideen» kontzeptuaren barruan interpreta daiteke udal-titulartasuneko irratiak eta telebistak barne hartzen direla, eta, programa-kontratuari buruzko aipamena izan ezik, aurreko paragrafoan egindako oharrak errepika daitezke haiei buruz ere.

Aurrekoarekin bat etorritz, aurreproiektuaren 20. artikulua laugarren apartatua ezabatzea hertsatzen da.

D) Antolamendu-alderdiak eta eragin ekonomikoa eta aurrekontu-eragina Administrazio Orokorrean eta Instituzionalean.

D.1. Antolamendu-alderdiak

Atal horri dagokionez, Administrazio Orokorraren eta eLankidetzeta-Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Agentziaren antolamendu-egiturari eragin diezaioketen eduki hauek hauteman dira aurreproiektuan.

1. Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzeari buruzko ekainaren 19ko 5/2008 Legearen 1. eta 3. artikulua aldatzea, eta 4. artikulua ezabatzea; ondorioz, batik bat, Agentziaren izena aldatu da eta haren funtzioak birdefinitu egiten dira. Memoriak honela justifikatzen du funtzioak birdefinitzea, funtzio bakoitzaren egokitasuna zehazteaz gain: «*arau-esparru horren funtzioak eta*



xedeak zaharkituta geratu direlako aurreproiektu honek sustatu nahi duen lankidetzako eta elkartasuneko politika berriaren ondorioz».

Aurreproiektuaren 9. artikulua eLankidetzaren Euskal Agentziari esleituko zaizkion eta 5/2008 Legearen 3. artikulua aldatuko duten funtzioak jasotzen ditu. Aurreproiektuko azken xedapenetako lehenengoan errepikatzen dira beroiek. Prozedura-ekonomia dela eta, eduki hori ez errepikatzea komeni da. Edukiari dagokionez, honako hau ikusten da:

- d) apartatua Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko sailek eta erakundeek lankidetzaren eta elkartasun-ekimenak kudeatu eta gauzatzeaz da. Hala ere, eLankidetzaren da «Eusko Jaurlaritzaren garapenerako lankidetzaren politika planifikatu, koordinatu, kudeatu eta gauzatzeko» eskumena duena³ eta, beraz, Bulego honek ez du ulertzen manu horren irismena. Egokiagoa izan liteke funtzio gisa aintzat hartzea «EAEko sektore publikoko sailei eta erakundeei laguntza ematea beren jarduera-eremuaren barruan gauzatzen dituzten ekimenetan lankidetzaren eta elkartasun-ikuspegia txertatzen».
- e) apartatuak eLankidetzaren jarduketaren ebaluazioa jasotzen du, lankidetzaren eta elkartasunaren arloko urte anitzeko plangintza horren arabera. Ebaluazioari dagokiona, 3/2022 Legeak, maiatzaren 12koak, Euskal Sektore Publikoari buruzkoak, IV. tituluko II. kapituluaren xedatzen duenari men egin behar dio.
- Iradokitzen da f) apartatuan «aplikagarri zaien araudiaren arabera» esapidea eranstea.
- h) apartatuan, «transferitzea» esamoldearen ordez, «ematea» izan behar du; eta kendu egin behar da «beste funts publiko zein pribatu batzuk» aipamena, zehaztasunik gabea delako eta dirulaguntzen arloko araudira egokitzen ez delako. Labur esanda, h) apartaturako honako idazkera hau proposatzen da: laguntzak eta dirulaguntzak lortzea, kudeatzea eta ematea beren eskumenen esparruan, eta agindutako oinarrien arabera. Gogorazari behar da, hurrengo atalean aipatuko den bezala, eLankidetzaren administrazio-egintzak baino ezin dituela eman, eta ez erregelamendu-xedapenak.
- i) apartatuak lankidetzaren eta elkartasunaren arloan arauak garatzeko ahala eman nahi dio eLankidetzari. Gogoan izan behar da, zuzenbide

³ 5/2008 Legea, ekainaren 19koa, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Agentzia sortu eta arautzen duena, egungo 3.1 artikulua.



pribatuko erakunde publikoa den aldetik, Agentziaren ahalak lankidetzaren eta elkartasunaren arloko administrazio-ebazpenak egikaritzera mugatzen direla, eta ebazpen horietan zuzenbide publikoaren arabera jardungo duela ahal publikoak erabiltzeagatik, xedapen orokorrak emateko inolako gaitasunik eduki gabe.

- n) apartatuari buruz txosten juridikoak dioena berresten dugu, Lehendakartzari egiten zaion aipamenaren ordezkari «eskumena duen saila...» esan dadin; bai eta p) apartatuari buruzkoan ere, kide anitzeko organoetan parte hartzeari dagokionez.

Justifikazio-memoriak, 11. artikuluari buruzko atalean, egiten diren aldaketen egokitasuna aztertzen du. Hala ere, ez dira beren-beregi funtzio berri horiek aipatzen memoria ekonomikoan. Espedientean ez da agertzen inolako zenbatespen ekonomikorik funtzio berri horien ondoriozko gastuaren balizko handitzeari edo murrizketari buruz, ezta diru-sarreretan izan dezakeen eraginari buruz ere.

2. Aurreproiektuaren 11. artikulua Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Kontseilua arautzen du; 1/2007 Legeak, otsailaren 22koak, Garapenerako Lankidetzari buruzkoak, 16. artikulua bidez sortu zuen organo hori, eta 158/2008 Dekretuak, irailaren 16koak, Garapenerako Lankidetzaren Euskal Kontseiluarenak (197/2014 Dekretuak, urriaren 21ekoak aldatu zuenak) garatu zuen. Aurkeztu den aurreproiektuak kontseiluaren izena aldatu nahi du, eta haren definizioari, eginkizunak zehazteari eta izendapen-sistemari buruzko apartatuak beste era batera idatzi nahi ditu.

Memoriak honela justifikatzen du Kontseiluaren eginkizunak berregituratzearen egokitasuna: *«aurreproiektuaren asmoa da kontseiluari hedadura sozial eta politiko handiagoa ematea; horretarako, gunea eragingarri egin dezaketen mekanismoetako batzuk mantendu, eta haren funtzioak aldatzen dira, EAEko lankidetzaren politikarako eztabaidarekin eta proposamenarekin lotutakoetan arreta berezia jarritz»*. Egiten diren aldaketen zergatiak aipatzen baditu ere memoriak, ez du inolako aipamenik egiten langile- edo gastu-premia berririk egoteaz, eta, baiki, aipatu egin behar da. Halako aipamenik gabe, bulego honek ezin du iritzirik eman planteatzen diren aldaketek duten eragin ekonomikoari buruz.

11. artikuluko bosgarren apartatuak gerorako uzten du kontseiluaren osaeraren, izendapenen eta kargu-uzteen, funtzionamenduaren eta eginkizunen arauketa berriaren erregelamendu-garapena. Bulego honen ustez, organoaren osaerari buruzko xedapenen bat jaso beharko luke legeak berak, haren araubidearen



funtsezko elementua baita. Zehazki, bulego hau bat dator 158/2008 Dekretuaren 3.3.i) artikuluan xedatzen den EAeko garapenerako lankidetzako beste gizarte-eragile batzuen sei ordezkariak izendatzeko moduari buruzko oharrarekin.

Aurreproiektuaren lehen xedapen iragankorrak xedatzen du 158/2008 Dekretua aplikatuko dela Lankidetzaren eta Elkartasunaren Euskal Kontseiluaren erregelamendu-garapen berria onartu arte, eta aurreproiektuan planteatutako erregulazioaren aurka ez doan guztian. Termino generiko horiek («horren aurka ez doan guztian») erabiltzeak segurtasun juridikorik eza eragiten du eta saihestu egin behar da. Era berean, ikusten da, 13. artikuluan planteatutako aldaketak gorabehera, aurreproiektuak ez duela 158/2008 Dekretua aldatzen, eta horrek inkoherentziak eragingo dituela Legea onartzen denetik Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Kontseilua arautzen duen erregelamendu-garapenera bitarte.

3. 13. artikulua Lankidetzarako eta Elkartasunerako Erakundearteko Batzordea arautzen du. Batzordeari dagokionez, aurreko azpiatalean Kontseiluari buruz egindako ohar guztiak errepikatzen ditugu. Bereziki, gogorarazi behar da kasu honetan ere ez dela zenbatespen ekonomikorik egin aldaketa horiek ekar dezaketen gastu gehigarriari buruz, edo aldaketa horiek diru-sarreretan izan dezaketen eraginari buruz, eta aipatu egin behar dira horiek guztiak.

4. 10.2 artikuluan Lehendakaritzari esleitzen zaizkion funtzioei dagokienez, arestian azaldutakoaz gain, nabarmendu behar dugu oraingo honetan ere ez dela inolako zenbatespenik egiten memoria ekonomikoan, gaur egungoei gehitutako funtzio horiek ekar dezaketen gastu gehigarriari buruz.

D.2.- Ogasunari eta finantza- eta ekonomia-araubideari loturiko alderdien eragina

Aurrekoa egiaztatuta, aztertzen ari garen proiektuak Euskal Autonomia Erkidegoko Ogasun Nagusiaren berezko gaietan izan dezakeen eragina aztertu behar da. Gai horiek zehaztuta daude Euskadiko Ogasun Nagusiaren antolarauei buruzko Legearen testu bateginean (azaroaren 17ko 1/1997 Legegintza Dekretuaren bidez onartu zen); zehazki, haren 1.2 artikuluan (*ondarearen erregimena, aurrekontuak egiteko eta kudeatzeko prozedura, Autonomia Erkidegoko ekonomia-jarduerak bete behar duen kontrol- eta kontabilitate-sistema, kontrataziorako erregimena, Euskadiko Diruzaintza Nagusiaren erregimena, tributuak eta bestelako diru-sarrera publiko eta pribatuak arautzea, zorpetzeko erregimena, bermeak emateko erregimena, laguntzak eta dirulaguntzak emateko erregimen orokorra, Autonomia Erkidegoak bere Ogasun Nagusiari dagozkion gaietan dituen eskumenen erregimena, eta Euskal*



Autonomia Erkidegoaren eskubideekin eta betebeharrekin zerikusia duen beste edozein erregimen).

16. artikuluko apartatu bakoitzaren azterketa xehatua egin aurretik, gogorarazi behar da laguntza eta dirulaguntza publikoen araubidea arautzeko eta gainbegiratzeko eskumena Ekonomia eta Ogasun Sailarena dela⁴, eta ez Berdintasun, Justizia eta Gizarte Politiketako Sailarena; eta arautzeko eskumen hori baliatuz, Ekonomia eta Ogasun Sailsa EAEko dirulaguntzen lege-aurreproiektua izapidetzen ari dela, eta lege horrek dirulaguntzen araubide aplikagarria arautuko duela; eta ezin duela beste ezein sailek ezein arauditan sartu eskumen-araubide hori aldatzen duen xedapenik.

16. artikuluko lehenengo apartatuak xedatzen du EAEko sektore publikoko administrazioek eta erakundeek ahaleginak egingo dituztela «*laguntzak emateko, egikaritzeko eta justifikatzeko sistemak arlo horretako nazioarteko akordio eta estandarretara, eta jarduerak gauzatzen diren lurraldeetako eta herrialdeetako errealitateetara egokitze*». EAEko sektore publikoaren kontzeptua birdefinitu beharrarena errepikatzeaz gain, gogorarazi behar da administrazio bakoitzaren eskumenak zehaztu behar direla eta aztergai dugun legeak Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Orokorrari soilik ezarri ahal diola agindu loteslerik.

Bigarren apartatuak dirulaguntza-araudian oro har xedatuta dauden kasuak aipatzen ditu, eta, hala badagokio, aplikatzekoak izango dira, izapidetzen diren dirulaguntzen deialdi zehatzetan; beraz, ez dago haiek aurreproiektu honetan zertan sartu. Zehazki:

- b) letrak ordainketa aurreratuak egiteko aukera ezartzen du. Gogoan izan behar da EONALTBren 49.11 artikuluko ordainketa aurreratuak salbuespenekotzat jotzen dituela eta, ondorioz, egokitasuna nahitaez justifikatu behar da, alegia, diruz lagundutako jarduketak egiteko premiazkoa denetz. Justifikazio hori kasuan-kasuan egin beharko da. Gainera, gogorarazi behar da aplikagarria dela 698/1991 Dekretua, abenduaren 17koa, Euskal Autonomia Erkidegoaren Aurrekontu Orokorren kontura emandako dirulaguntzen bermeei eta dirulaguntza horiek itzultzeari buruzko erregimen orokorra arautzen duena.

⁴ 69/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, 1.1.d) artikulua.



- c) letrari dagokionez, gogoan izan behar da dirulaguntzen justifikazio oinarritzkoa arautzen duela 38/2003 Lege Orokorrak, azaroaren 17koak, Dirulaguntzei buruzkoak (DLO), I. tituluko IV. kapituluan. Hala ere, horri dagokionez.
- Ez-betetze partzialari dagokionez (d letra), ohartarazi behar da, ontzat emanaz gero, dirulaguntza-arauak haren onuradun izateko ezarritako gutxieneko baldintzak bete egin behar direla, eta oinarrietan gutxieneko baldintza horiek zehaztu, eta onuradunak azkenean jaso behar duen zenbatekoa zehazteko aplikagarriak diren graduazio-irizpideak ezarri behar direla.

Beraz, bulego honek 16. artikuluko 1. eta 2. apartatuak honela idaztea proposatzen du:

«16.1. Eusko Jaurlaritzak, erregelamendu bidez, lankidetzaren eta elkartasun-gaietan, eta ogasun-gaietan eskumena duten sailek batera proposatuta, lankidetzarako eta elkartasunerako dirulaguntzei buruzko arau bereziak onartuko ditu. Araudi hori dirulaguntzen araudi aplikagarriara egokituko da, salbu eta publizitate- edo lehia-printzipioak eta emateko erregimenaren beste alderdi batzuk salbuetsi behar diren, hau da: ordainketa, diruz lagun daitezkeen gastuak, gauzatzeko eta justifikatzeko epeak, kontrola, itzulketak edo zehapenak, dirulaguntzen izaerarekin edo hartzaileekin bateraezinak diren neurrian.

Nazio Batuetako organismoen kasuan, gastuaren justifikazioa egingo da Estatuak sinatutako nazioarteko akordioetan eta tratatuetan lege ezarritakoaren arabera.

16.2. Itzulketen eta gauzatu gabeko zenbatekoen prozeduretan, berandutze-interesa ez zaie aplikatuko lankidetzarako eta elkartasunerako dirulaguntzei eta laguntzei.

Bestalde, 16. artikuluko hirugarren apartatuan pertsona juridikoek lankidetzako deialdietan laguntza eta dirulaguntzen onuradun izateko bete behar dituzten baldintza espezifikoak ezartzen dira. Bulego honek ez du egokitzen jotzen baldintza orokor horiek sartzea aurkeztutako lege-aurreproiektuan; izan ere, dirulaguntza bakoitzaren oinarrietan, kasuan-kasuan kontuan hartu eta justifikatu behar diren egokitasun-irizpideen arabera, baldintza jakin batzuk ezarriko dira. Gainera, proposatzen diren betebeharrei dagokienez, honako hau nabari da:



- «Egoitza edo ordezkariak Euskal Autonomia Erkidegoan izatea» eskatzeari dagokionez, bulego honek planteatzen du diskriminazioa eragin dezakeela laguntzak eta dirulaguntzak lortzeko.
- Entitate taldeak lehiatzeari buruzko xedapenek ez dute betetzen DLOren 11. artikulua edukia, oinarritzeko tasuna duena: *«taldekide guztiak izango dira dirulaguntzaren onuradun, eta, ondorioz, araudiak ondorio horietarako ezartzen dizkien betekizunak eta eskatzen zaizkien betebeharrak bete beharko dituzte»*.

D.3.- Ekonomia- eta aurrekontu-eragina

1. Aldez aurretik kontuan hartzekoak

7/1981 Legeak, ekainaren 30ekoak, Jaurlaritzari buruzkoak, 57. artikuluan agintzen du lege-proiektuekin batera azterketa bat egin behar dela, lege berriak eragin dezakeen aurrekontu-kargari buruzkoa.

Xedapen Orokorrak Egiteko Prozeduraren abenduaren 22ko 8/2003 Legearen 10.3 artikuluan ezarritakoaren arabera, *«expedienteak memoria ekonomiko bat edukiko du, eta, hor, egitekoa den arauaren kostuaren zenbatespena azalduko da: gastu eta diru-sarrerak zenbatuta agertuko dira, eta, orobat, herri-administrazioaren aurrekontuetan izango duen eragina, finantzaketa-iturri eta -erak nahiz Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren ekonomia- eta araudi-kontrolaren gaineko arauak zehaztutako beste alderdi batzuk. Egitekoa den arau horren aplikazioak beste administrazio publiko batzuei, banakoei eta oro har ekonomiari ekarriko dion kostua ere neurtuko du»*.

Ekonomiaren eta arauen kontrola gauzatzea arautzen duen araudiari dagokionez, zehazki, Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazio Publikoaren barneko ekonomiaren kontrola eta kontabilitatea garatzen dituen urriaren 31ko 464/1995 Dekretuaren 42. artikulua ezarritakoaren arabera, ekonomiaren eta arauen kontrolari buruzko txostena emateko, ezinbestekoa da memoria bat bidaltzea, honako datu hauek kontuan hartuta, besteak beste: araua indarrean jartzeak ekarri ditzan aurrekontu-gastu eta diru-sarreraren kuantifikazioa; gastuon finantzaketa; xedapenen aurrekariak deskribatzea eta horren beharrak justifikatzea; xedapena han sartzen deneko aurrekontu-programa ekonomikoaren deskribzioa, bere baitan hartuko dituen helburuak, egintzak eta indikatzaileak identifikatuz; araua aplikatzeak ekonomia eta gizarte mailan izango dituen eraginaren ebaluazioa eginez; eta proposamenaren gai izan den erregulazioari indarra ematen dioten iritzi orokorrak eta juridikoak ezagutzeko bide eman dezaketen datu, txosten eta ikerketa guztiak.



Laburbilduz, araua onetsi aurreko hausnarketa-prozesuaren barruan hark eragingo duen gastu publikoa zehatz-mehatz ebaluatu behar da, gastu publikoaren ekonomiaren eta eraginkortasunaren printzipioak betetzeko. Eta arauak partikularrengan eta ekonomian, oro har, izango duen eragina ere balioetsi behar da, bideragarria eta zentzuzkoa dela bermatzearren.

Espedienteari atxikitako memoria ekonomikoak ez du 42. artikulua gutxienezko edukia jasotzen, eta EAEko aurrekontuaren guztizko gastuaren % 0,7 lankidetzaren eta elkartasun-politikara bideratzeko helburu komuna baino ez du aipatzen. Espedienteari memoria ekonomiko osoa erantsi behar zaio, arau hau onartzeko eskumena duen organoak araudi berriaren irismen orokorra ulertzeko beharrezkoa den ekonomia- eta aurrekontu-arloko informazio guztia izan dezan.

2.- Gastuak:

Antolamendu-eraginari buruzko atalean, ikusi da ez dela kuantifikaziorik jasotzen, ezta gutxi gorabeherakorik ere, langile-premia posibleei edo funtzionamenduari datxezkion gastu osagarriari buruz.

Era berean, ez da agertzen araua indarrean jartzeak eragin ditzakeen gastuen kuantifikaziorik edo zenbatespenik. Hala ere, artikuluetan erreferentzia orokorrak egiten zaizkio lankidetzara eta elkartasunera bideratutako funtsak edukitzeari, adibidez, 5.g.i) artikuluan («EAEko lankidetzarako eta elkartasunerako politikaren efikazia, efizientzia eta irismen handiagoa erdiesteko, hauexek lortu behar dira: i. politika honetara bideratzen diren funts publikoak nahikoak, jarraituak eta aurreikusteko modukoak izatea»); eta 17.1 artikuluan («EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, urtero esleituko dituzte euren aurrekontuetan lege honetan aurreikusitako funtzioak eta eginkizunak garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak»). Espedientean ez da ezer aipatzen horri buruz. Beraz, emandako datuekin ezinezkoa da aurreproiektuaren eragin ekonomikoari buruzko zentzuzko iritzia ematea, ezta haren finantza-arrazoizkotasunari buruzkoa ere, modu kuantifikagarrian.

Aurreproiektuaren 17. artikulua, Finantzaketa, aintzat hartzen du bere 2. apartatuan EAEko sektore publikoaren helburu komuna dela «Espainiako errenta gordinaren % 0,7 garapenerako laguntza ofizialera bideratzea»; eta 3. apartatuan agintzen du «Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu orokorrak, Eusko Legebiltzarrak onartuak, urtero bere guztizko gastu finkatuaren % 0,7 bideratuko du lankidetzaren eta elkartasun-politikara. Lankidetzaren aurrekontuaren urteko hazkundera gutxienez aurrekontu orokorraren urteko hazkunderaren proportzioan handituko da;



hori guztia kontuan hartu gabe garapen globalaren helburuak lortzen lagundu dezaketen beste funts batzuk». 17.2 artikuluari dagokionez, EAEko sektore publikoaren kontzeptua birdefinitu eta indarrean dagoen araudira egokitzeko beharra berresaten da.

17.3 artikulua idazkerarekin, berriz, ekimena sustatu duen organoak eskumenik ez duen gaietan agindu nahi du («bideratuko du» esamoldea erabiltzen da), Ekonomia eta Ogasun Saila baita «*Euskal Autonomia Erkidegoko Aurrekontu Orokorrak zuzendu, landu, kudeatu, jarraipena egin eta kontrolatzeko eskumena duena, bai eta aurrekontu-programazioa egitekoa ere*»⁵. Euskal Autonomia Erkidegoko Administrazioaren aurrekontuei buruzko legeek, eta ez beste gai batzuei buruzko lege sektorialek, ezarriko dute gastuaren urteko banaketa, indarrean dagoen aurrekontu-araubideari buruzko araudia betez. Horrela, 17.2 eta 17.3 apartatuak apartatu bakarrean batzea iradokitzen dugu, ondoren adieraziko den eran.

Azkenik, 17.5 artikulua bidez, «*Euskal Autonomia Erkidegoko lankidetzaren eta elkartasun-politikarako aurrekontu orokorrean esleitutako eta dagokion aurrekontu-ekitaldian gauzatzen ez diren aurrekontu-kredituak*» sartu ahal izango dira «*hurrengo ekitaldiko aurrekontuetako aurrekontu-sail baliokidean, osagarri*». Xedapen sistematiko hori ez da zuzena. Alde batetik, kreditu-txertaketa dagokion sektoreko araudian jada ezarrita dagoen aurrekontu-aldaketa bat da⁶, eta, egoki bada, dagoeneko aitortutako betekizunak betetzeari lotuta ez dauden eta aplikagarriak diren lege-baldintzak betetzen dituzten ordainketa-kredituekiko izapidetuko da. Horregatik, ez da bidezkoa lege batean orokortasunez ezartzea. Bestetik, ez dago argi zer adierazi nahi duen aurreproiektuak «*lankidetzaren eta elkartasun-politikarako aurrekontu orokorrean esleitutako (...) aurrekontu-kredituak*» dionean, izan daitezkeelako, adibidez, ekitaldi jakin bateko proiektuetarako esleitutako dirulaguntza izendunak, ez dutenak zertan izan hurrengo ekitaldietarako ere. Beraz, 17. artikulua bosgarren apartatua ezabatu egin behar da.

Ondorioz, bulego honek proposatzen du 17. artikulua honela idatz dadila:

«17.1. EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, urtero esleitu dituzte euren aurrekontuetan lege

⁵ 69/2021 Dekretua, otsailaren 23koa, Ekonomia eta Ogasun Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzeko, 1.1.a) artikulua.

⁶ Zehazki, 1/2011 Legegintzako Dekretuak, maiatzaren 24koak, Euskadiko aurrekontu-araubidearen arloan indarrean dauden lege-xedapenen testu bategina onartzen duena eta Euskal Autonomia Erkidegoko sektore publikoko fundazio eta partzuergoei aplikatu beharreko aurrekontu-araubidea arautzen duenak, V. tituluaren xedatzen du.



honetan aurreikusitako funtzioak eta eginkizunak garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak.

17.2. Estatuko gainerako erakundeekin batera Espainiako errenta gordinaren % 0,7 bideratzeko helburu erkidean aurrera egiteko, EAEko Administrazioak urtero ezarriko ditu lankidetzara eta elkartasunera bideratutako ekarpenak, gastu ez-finantzario osoaren % 0,7 izatera iritsi daitezzen 2030. urtean.

17.3. Ondorio horietarako, EAEko lankidetzara-eta elkartasun-politika publikora bideratutako baliabide ekonomikoak handitu ahal izango dira pertsona fisikoek edo juridikoek eta Estatuko nahiz nazioarteko entitate eta erakunde publikoek edo pribatuek egindako ekarpenekin.

3.- Diru-sarrerak:

Espedientearen memoria ekonomikoak diru-sarrerei buruz ere ez du argibiderik ematen.

4.- Beste administrazio publiko batzuetan, partikularrengan eta ekonomia orokorrean izango duen eragin ekonomikoa.

Espedienteak ez dio ezer aurreproiektuak beste administrazio publiko batzuetan izan dezakeen eragin ekonomikoaz. Hala ere, adierazi behar da nekez zehaztu ahal izango dela aipatutako eragina, ez bada aurretiaz aztertzen zer eskumen dagokion administrazio bakoitzari lankidetzara- eta elkartasun-arloan. Aztertu eta zehaztu ondoren, orduan ezarri ahal izango da arauak haietako bakoitzean ukituko duen baliabide instituzionalen bolumena. Beraz, ekimena sustatu duen sailak, arlo horretako eskumen-bilbea argitu ondoren, ekimenaren eragin ekonomikoa zehaztu beharko du espedientearen, argi eta garbi ondorioztatzen baita hura 17.1 artikulua dionetik («EAEko administrazio publikoek, beren eskumenen esparruan, urtero esleituko dituzte euren aurrekontuetan lege honetan aurreikusitako funtzioak eta eginkizunak garatzeko behar diren baliabide ekonomikoak»).

Espedientearen jasota dator enpresan izango duen eraginari buruzko txostena, eta honako hau ondorioztatzen da bertan: «arauak ez ditu inola ere aldatzen ez enpresak sortzeko kudeaketak ez prozedurak. Halaber, ez du beharrezkoa ez den izapiderik ezartzen aurreikusitako lankidetzara- eta elkartasun-jardueretan parte hartzeko. Ez denez jarduera eta zerbitzu berririk aurreikusten (halakorik sortzeko dagokion araua



garatu beharko da), Lankidetzarako eta Elkartasunerako Euskal Legearen aurreproiektuak enpresa pribatuentzat eraginik ez duela ulertzen da.

Goian azaldutakoa dela eta, pentsatzekoa da proiektatutako araudiak ez duela eraginik EAEko enpresak sortu, abian jarri eta funtzionatzeko orduan».

Espedientean ez da ezer esaten partikularrei buruz.

IV) ONDORIOA

Azaldu beharrekoa hori izanik, legea sustatu duen sailari helarazi zaio txosten hau, egin zaizkion oharrak barne, bereziki, hauek:

- Espedientean ez dago lankidetzaren eta elkartasun-arloan administrazio bakoitzari esleitutako eskumen-esparruaren azterketarik, eta, ondorioz, ezin daiteke zenbatetsi arau berriak haietako bakoitzean izango duen eragin ekonomikoa.
- Aurreproiektuaren 2.1 artikuluan, «EAEko sektore publikoa» kontzeptua ez dator bat 3/2022 Legeak, maiatzaren 12koak, Euskal Sektore Publikoarenak, 4. artikuluan xedatzen duen legezko kontzeptuarekin.
- Espedientean ez dago eLankidetzaren, Lankidetzaren eta Elkartasunerako Euskal Kontseiluaren eta Lankidetzaren eta Elkartasunerako Erakunde arteko Batzordearen funtzioen aldaketek izan dezaketen eragin ekonomikoaren azterketarik.
- 16. artikulua berridatzi egin behar da, D.2. apartatuan adierazten den eran.
- 17. artikulua berridatzi egin behar da, D.3.2. apartatuan adierazten den eran.